Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2994

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 12koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan erretiro aurreratua hartzen duten nekazarientzako laguntzen sistemaren zenbatekoak eguneratzen dira, 2011. urterako.

Kontseiluaren 2079/92 (EEE) Erregelamendua, 1992ko ekainaren 30ekoa, nekazarien erretiro aurreraturako laguntzen sistema erkidea arautzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoan, «Euskal Autonomi Elkartean nekazaritza iharduera lehenago lagatzeko laguntzetarako araubidea finkatzen duen martxoaren 30eko 82/1993 Dekretua»ren bidez, eta hura garatzeko foru-aldundiek emandako arauen bidez, garatu eta aplikatu zen.

Aipatutako 82/1993 Dekretua hainbat aldiz aldatu zen, eta ezarritako zenbatekoak kasu bakoitzean berrikusi ziren. Irailaren 10eko 219/1996 Dekretuaren bidez egindako azken aldaketan, aipatutako Dekretuaren 10. eta 14. artikuluetan finkatutako laguntzen zenbatekoak Industria, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu baten bidez berrikusiko direla erabaki zen, horretarako Gizarte Segurantzaren sisteman erretiratzeagatiko gutxieneko banakako pentsioetarako ezartzen den eguneratzea kontuan hartuta.

Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren (NBBEF) kontura landa-garapenerako laguntzari buruzko 1257/1999 (EE) Erregelamenduak, Kontseiluarenak, eta hura aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen 445/2002 (EE) Erregelamenduak, Batzordearenak, sakon aldatu zuten erretiro aurreratua hartzen duten nekazarientzako laguntzen sistema arautzen zituen erkidegoko araudia. Bi erregelamendu horiek aurreko arauditik gehiena indargabetu zuten, eta arlo horretan araudi berria ezarri zuten.

Uztailaren 28ko 166/2000 Dekretuak erkidegoko araudi berria jasotzen zuen, erretiro aurreratua hartzen duten nekazarientzako laguntzen sistema barne. Alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustiategietarako, landa-eremuen garapen eta egokitzapenerako, eta basogintzarako laguntzak arautzen dituen 243/2004 Dekretuak (EHAA, 239. zk., 2004ko abenduaren 16koa) 166/2000 Dekretua ordeztu zuen. Halaber, Dekretu horretako 20.4 artikuluan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2994

ORDEN de 12 de mayo de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se actualizan los importes del régimen de ayudas al cese anticipado de la actividad agraria en la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2011.

El Reglamento (CEE) n.º 2079/92 del Consejo, de 30 de junio de 1992, por el que se establece un régimen comunitario de ayudas a la jubilación anticipada en la agricultura fue desarrollado y aplicado en la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Decreto 82/1993, de 30 de marzo, por el que se establece el régimen de ayudas al cese anticipado de la actividad agraria en el País Vasco, así como por las normas que en su desarrollo dictan las Diputaciones Forales.

El citado Decreto 82/1993, fue modificado varias veces procediéndose en cada caso a revisar los importes establecidos. En su última modificación efectuada a través del Decreto 219/1996, de 10 de septiembre, se estableció que, anualmente, mediante Orden del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, se revisarán los importes de las ayudas fijadas en los artículos 10 y 14 del Decreto en cuestión, teniendo en cuenta la actualización que para las pensiones mínimas individuales por jubilación se fijen en el Sistema de Seguridad Social.

La reglamentación comunitaria en la que se basaba el régimen de ayudas al cese anticipado de la actividad agraria fue objeto de una profunda modificación por el Reglamento (CE) n.º 1257/1999, del Consejo, sobre ayudas al desarrollo rural a cargo del Fondo Europeo de Orientación y Garantía Agrícola (FEOGA) y el Reglamento (CE) n.º 445/2002, de la Comisión, por el que se establecen las disposiciones de aplicación. Estos nuevos reglamentos derogaron la mayor parte de la reglamentación anterior e instauraron un nuevo régimen en esta materia.

El Decreto 166/2000, de 28 de julio recogía la nueva reglamentación comunitaria, incluyendo el régimen de ayudas al cese anticipado de la actividad agraria. Sin embargo, el Decreto 166/2000 fue sustituido por el Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, sobre ayudas a las explotaciones agrarias, al desarrollo y adaptación de las zonas rurales y a la silvicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV n.º 239 del 16 de diciembre de 2004). En este Decreto

aurreikusten da, urtero, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu baten bidez, artikulu horretan ezarritako laguntzen zenbatekoak eguneratu egingo direla, eta horretarako Gizarte Segurantzaren sisteman erretiratzeagatiko gutxieneko banakako pentsioetarako ezartzen den eguneratzea izango dela kontuan.

166/2000 Dekretuaren bigarren xedapen indargabetzaileak 82/1993 Dekretua indargabetu zuen, baina esaten zuen 82/1993 Dekretua ezarritako laguntza sistemako onuradunek dekretu horretan ezarritakoari jarraituko ziotela, laguntza horiek agortu bitartean. 243/2004 Dekretuak, halaber, 166/2000 Dekretua indargabetu zuen, baina uztailaren 28ko 166/2000 Dekretu horren babesean emandako laguntzak, amaitu bitartean, bertan ezarritakoaren arabera arautzen jarraitzeko agindu zuen.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuak 243/2004 Dekretua indargabetu du oraintsu. Arlo honetako aurreko arauetan bezala, indargabetutako dekretuaren babesean emandako laguntzak, amaitu bitartean, dekretu horretan ezarritakoaren arabera arautzen jarraitzeko agintzen da. Dekretu horretan ez da aurreikusten nekazaritza arloan eskumenak dituen Jaurlaritzako sailak urtero eguneratze-agindu bat ematea; aitzitik, eguneratzea foru-aldundien esku uzten da, haiek kudeatzen eta finantzatzen baitute laguntza hori batera.

Aurrekoa horrela izanik ere, lehengo sistemetatik datozen laguntzak eguneratu behar dira: martxoaren 30eko 82/1993 Dekretutik datozenak, uztailaren 28ko 166/2000 Dekretutik datozenak, eta azaroaren 30eko 243/2004 Dekretutik datozenak.

Dekretu horiek guztietan Gizarte Segurantzaren sisteman erretiratzeagatiko gutxieneko banakako pentsioetarako ezartzen den eguneratzea kontuan hartuta egiteko agintzen da. Gauzak horrela, laguntzen zenbatekoak eguneratu dira, eta % 2,3ko igoera aplikatu zaie, hori baita, azkenean, 2010erako, erretiratzeagatiko gutxieneko banakako pentsioetarako ezarri dena.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Erretiro aurreratua hartzen duten nekazarientzako laguntzen sistema arautzen duen martxoaren 30eko 82/1993 Dekretuan ezarritako laguntzen zenbatekoak berrikustea, honen arabera:

a) 10.1 artikulua.– Aurreko berrikuspenaren ondorioz «5.968,05 euro» esaten zuen lekuan, «6.105,32 euro» esango du.

se prevé, asimismo, en su artículo 20.4 que, anualmente, mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, se actualizarán los importes de las ayudas fijadas en dicho artículo, teniendo en cuenta la actualización que para las pensiones mínimas individuales por jubilación se fijen en el Sistema de Seguridad Social.

El Decreto 166/2000, en su disposición derogatoria segunda, derogaba expresamente el Decreto 82/1993, disponiendo, no obstante, que los beneficiarios acogidos al régimen de ayudas previsto en el Decreto 82/1993 seguirán rigiéndose por lo dispuesto en él hasta la finalización de dichas ayudas. El Decreto 243/2004, a su vez, derogó el Decreto 166/2000, pero dispone que las ayudas concedidas al amparo del Decreto 166/2000, de 28 de julio, sigan rigiéndose por lo dispuesto en él hasta su finalización.

El Decreto 243/2004 ha sido recientemente derogado por el Decreto 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales al sector agrario. Como en las anteriores normas en esta materia, se dispone que las ayudas concedidas al amparo del Decreto derogado seguirán rigiéndose por lo dispuesto en él hasta su finalización. En este nuevo Decreto ya no se prevé que exista anualmente una Orden de actualización por parte del Departamento del Gobierno competente en materia de agricultura, sino que implícitamente se deja la actualización en manos de las Diputaciones Forales, que son las que cofinancian y gestionan esta ayuda.

No obstante lo anterior, es necesario proceder a la actualización de las ayudas subsistentes de los regímenes anteriores: el derivado del Decreto 82/1993 de 30 de marzo, el derivado del Decreto 166/2000 de 28 de julio, y el derivado del Decreto 243/2004 de 30 de noviembre.

En todos estos Decretos se dispone que la revisión se efectúe teniendo en cuenta la actualización que para las pensiones mínimas individuales por jubilación se fijen en el Sistema de Seguridad Social. Así lo dicho, se actualizan las citadas cuantías de las ayudas, aplicando una revalorización del 2,3%, que ha sido la que de forma definitiva ha quedado establecida para las pensiones mínimas individuales por jubilación del año 2010.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Revisar los importes de las ayudas fijadas en el Decreto 82/1993, de 30 de marzo, por el que se establece el régimen de ayudas al cese anticipado de la actividad agraria en el País Vasco, conforme se indica a continuación:

a) Artículo 10.1.– Donde, como consecuencia de la última revisión, decía «5.968,05 euros», dirá «6.105,32 euros».

b) 14.1 artikulua.– Aurreko berrikuspenaren ondorioz «4.489,19 euro» esaten zuen lekuan, «4.601,65 euro» esango du.

Bigarrena.– Uztailaren 28ko 166/2000 Dekretuaren 24.1 a), b) eta c) artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustiategietarako, landa-eremuen garapen eta egokitzapenerako eta basogintzarako laguntzak arautzen dituen azaroaren 30eko 243/2004 Dekretuaren 20.1 a), b) eta c) artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoak eguneratzea, ondoren adierazten den eran:

a) Aurreko berrikuspenaren ondorioz «5.968,05 euro …/… urtean gehienez 15.000 euro ustiategi bakoitzeko» esaten zuen lekuan, «6.105,32 euro …/… urtean gehienez 15.000 euro ustiategi bakoitzeko» esango du.

b) Aurreko berrikuspenaren ondorioz «4.096,82 eurokoa izango da guztizko marjina gordina 20.483,86 eurokoa denean» esaten zuen lekuan, «4.191,05 eurokoa izango da guztizko marjina gordina 20.954,86 eurokoa denean» esango du.

c) Aurreko berrikuspenaren ondorioz «4.498,19 euro» esaten zuen lekuan, «4.601,65 euro» esango du.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Aurrekoa gorabehera, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatutako egoera juridikoei aplikatuko zaie.

Laugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 12a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

b) Artículo 14.1.– Donde, como consecuencia de la última revisión, decía «4.498,19 euros», dirá «4.601,65 euros».

Segundo.– Actualizar los importes de las ayudas fijadas en el artículo 24.1 a), b) y c) del Decreto 166/2000, de 28 de julio, y en el artículo 20.1 a), b) y c) del Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, sobre ayudas a las explotaciones agrarias, al desarrollo y adaptación de las zonas rurales y a la silvicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme se indica a continuación:

a) Donde, como consecuencia de la última revisión, decía «5.968,05 euros .../... con el límite total de 15.000 euros/año por explotación», dirá «6.105,32 euros .../... con el límite total de 15.000 euros/año por explotación».

b) Donde, como consecuencia de la última revisión, decía «4.096,82 euros para un margen bruto total de 20.483,86 euros», dirá «4.191,05 euros para un margen bruto total de 20.954,86 euros».

c) Donde, como consecuencia de la última revisión, decía «4.498,19 euros», dirá «4.601,65 euros».

Tercero.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. No obstante lo anterior se aplicará a las situaciones jurídicas producidas desde el 1 de enero de 2011.

Cuarto.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.